

Lan-koadernoa
Hasiera-zikloa

Kidane altxor baten jabe da

Ester Casals



Intermón Oxfam

Lan-koaderno
Hasiera-zikloa

Kidane altxor baten jabe da



Intermón Oxfam

Nazio Batuek Milurtekoaren Agiria sinatu zuten 2000. urtean, non hitz eman zuten Milurteko 8 Garapen-Helburuak (ODM) beteko zituztela, 2015erako muturreko pobrezia erdira jaisteko lehen urrats gisara.

Estatuei beren hitza bete dezaten exijitzeko, GKE-en Koordinakunde estataleko 400 erakunde baino gehiago —tartean Intermon— Zero Pobrezia izeneko kanpainari atxiki gataizkio.

Kidane altxor baten jabe da

Hasiera-zikloa

Lan-koadernoak ikasleentzat

Sortaren zuzendaria: Raquel León eta Montse Riera

Autoretzaren koordinazioa: Gemma Bello

Akolkularitza-batzordea: M. Àngeles Alié, Carme Batet, Mireia Claverol, Núria Ensesa, Marga Florensa, Israel García, Joan Pere Guzmán, Laura Martí, M. Jesús del Olmo, José Palos, Desiderio de Paz, Ferran Polo, Patricia Quijano, María Rico, Teresa Riera, M. Llúisa Ruiz

Ekoizpenaren koordinatzailea: Elisa Sarsanedas

Azaleko eta barruko diseinua: Estudi Lluís Torres

Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

1. argitaraldia: 2006ko uztaila

© Autoretza: Ester Casals

© Ilustrazioak: Àngel Sauret

© Intermón Oxfam

Roger de Llúria, 15, 08010 Barcelona

Tel. 93 482 07 00 . Faxa: 93 482 07 07

info@IntermonOxgam.org

ISBN:



Kaixo. Kidane naiz eta 7 urte ditut.
Jaio nintzen herritik alde egin behar izan genuen,
eta orain hiri koskor batean bizi gara.
Gertatutakoa eta nik bizi izandako gauzak kontatuko
dizkizuet.




Gurasoei laguntzen diet tef-a landatzen.
Putzuan ur gutxi dago eta, antza denez,
aurten ia euririk ez du egingo eta lehorre handia
ezagutuko dugu.



Ez dugu ez urik ez janaririk.
Tef-a ez da hazi.
Konponbideren bat topatu beharko da.
Zer injustizia.



Egunak daramatzagu ibilian, eta neka-neka eginda gaude.
Oraindik ez dugu herririk aurkitu,
bertan geratzeko modukoa.
Aitonak oparitutako wasent-ari begiratzeak
oroitzapen politikak ekartzen dizkit, nire altxorra da.



Aurkitua genuen bizitzeko toki bat,
baina Lamlam larriki gaixotu da.
Hirira eraman beharra daukagu, han
sendagileak ikusi ahal izango duelako.
Urrunean hiria bistaratzen da. Iritsi gara, behingoz!



Sendagileak dio Lamlam oso gaixorik dagoela,
eta ospitalean geratu beharko duela.
Gurasoak triste daude.
Lamlam sendatzea nahi dut nik.
Bizitzeko etxe bat topatu beharko dugu.



Gurasoek lana topatu dute.
Orain etxetxo batean bizi gara, oso gustukoa dut.
Lamlam ospitalean dago oraindik, eta hura ikustera
joaten gara.




Gurasoek lanarekin dirua irabazten dutenez,
eskolara joan ahal dut.
Ni ez naiz inoiz eskolan egon, eta oso pozik nago,
gauza asko ikasteko aukera baitaukat.



Lagunak baditut, asko.
Nik wasent-a jotzen irakatsi diet, eta haiek
niri beren jolasak.
Lamlam gero eta hobeto dago.





Berrito denok elkarrekin gaude.
Oso zoriontsuak gara.
Lehortea desagertzea nahi nuke,
hainbat pertsonak bizi izan duten
sufirimendua ez errepikatzeko.





Kidane naiz eta 7urte ditut.
Halakon bizi naiz (Etiopian).
Eskolara joatea atsegin dut
eta lagunekin jolas egitea
ere bai.
Eta zuk, nola duzu izena?
nongoa zara?
zer gustatzen zaizu egitea?




Margo itzazu marrazkiak, non ura ezinbestekoa den.








Bil ezazu zirkulu baten barruan, ur-kontsumorik onena erakusten duen marrazkia.



Bila itzazu bi marrazki hauetan dauden bost ezberdintasunak. Zeintzuk dira?



Zeintzuk dira zuk ezagutzen dituzun garraiobideak?



Zeintzuk dira Kidane-ren familiak erabiltzen dituenak?

**Marraz eta idatz itzazu gaixorik zaudenean
erabiltzen dituzun gauza guztiak.
Gero bil ezazu zirkulu baten barruan,
ezinbestekoak direnak bakarrik.**

Orri honetan, hainbat lanbide agertzen dira. Bete ezazu lauki bat, batzuk ala asko, agertzen diren lanbideak noraino gustukoak dituzun neurtuz. Nahi izanez gero, beste hiru lanbide marraztu eta neurtu.



sendagilea

□ □ □ □ □ □



informatikaria

□ □ □ □ □ □



suhiltzailea

□ □ □ □ □ □



okina

□ □ □ □ □ □



hile-apaintzailea

□ □ □ □ □ □



kale-garbitzailea

□ □ □ □ □ □



banatzailea

□ □ □ □ □ □



fruta-saltzailea

□ □ □ □ □ □



udaltzaina

□ □ □ □ □ □



autobus-gidaria

□ □ □ □ □ □



irakaslea

□ □ □ □ □ □



postaria

□ □ □ □ □ □



nekazaria

□ □ □ □ □ □

□ □ □ □ □ □

□ □ □ □ □ □

□ □ □ □ □ □

Osa itzazu ondoko esaldiak:

Nire eskolaren izena da _____

Eskolan gehien egitea gustatzen zaidana da _____

Zailena egiten zaidana da _____

Nire lagunik onena da _____




Ahalegina jarri ahal izateko _____

Gustura egoteko _____

Nire jolasik gustukoena da _____



Zenbat jolas-mota ezagutzen dituzu?



Eman bukaera istorio honi.




Zer ikasi dugu?

Kidane-rekin
ikasi dut...



Hauek dira Kidane-ren eta gure bizimoduaren arteko aldeak:

Denon artean asmatu zerbait lehortearen arazoa konpontzeko,
beste inork sufri ez dezan Kidane-k sufritu duena.





Intermón Oxfam




Etiopiako Kidane izeneko haur baten istoriotik abiatuta, muturreko pobrezia-egoera baten berri izango dugu. Lehorreak etxea utzi eta bizitzeko beste toki bat bilatzera bultzatu du Kidane eta bere familia. Kidane-k ete bere familiak beren oinarriko premiak asetzeko duten aukera-gabezia eta oztopoak ezagutzen lagunduko digu esperientzia horrek. Istorioarekin batera proposatzen diren jarduerak lagungarri dira pobrezia kontzeptuaz gogoeta egin eta injustizia-egoera aztertzeke.

Lehen mailako hezkuntzako unitate didaktikoen bilduma

Bilduma hau Intermon Oxfamek duen **Herritartasun Globalerako Hezi izeneko** programaren zati da. Inguruko errealitatea hobeto ezagutu eta ulertzeko jarrerak eta baloreak sustatu nahi ditu ikasleen artean, horrela mundu justuago eta elkartasun gehiagokoa eraikitzen aktiboki parte hartzerik izan dezaten.

Lan-proposamen globala, malgua eta ikasleen premietara egokitua da honako hau. Koaderno hau haur-hezkuntzako ikasleentzat pentsatuta dago.



Ziklo bereko beste koaderno batzuk:

GAIA Merkataritza justiziaz
Ezusteko bisita

GAIA Hezkuntza orain
Amina eta Musa eskolara doaz

GAIA Ingurumena eta garapena
Noaga eta ura

GAIA Armak kontrolpean
Ezusteko bat izan du Rosalinal

GAIA Hautzaroaren eskubideak
Betok hazi egin nahi du

ISBN 84-8452-402-7



9 788484 524021

752193